

Bertaratutako kideak:

Sonia Rivas Borrell and.

Unibertsitateen ordezkaria
Nafarroako Unibertsitatea

Pedro Rascón Macías jn.

Aitortutako ospea duen pertsona.

Pablo Arriazu Amat jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

Gil Sevillano González jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

Josu Reparaz Leiza jn.

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate
titularren ordezkaria

-Nafarroako Ikastolen Elkarte

Laura Sanzol Olleta and.

Ikastetxe pribatuetako irakasleen
ordezkaria (FSIE-SEPNA).

Arantxa Ruiz Vidorreta and.

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (STEE-EILAS).

Jabi Arakama Urtiaga jn.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(Geroa Bai).

Cristina Bayona Saez and.

Unibertsitateen ordezkaria
(NUP)

Tomás Rodríguez Garraza jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

Arantza Zuriarrain Iñiguez and.

Iruñean, 2021eko ekainaren 9ko
17:15ean, bigarren deialdian, Nafarroako
Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo
Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da
Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan,
Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu
dela, alboan adierazitako kideak bertan
direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna
idazkari dela, honako gai zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta,
hala badagokio, onestea.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

3. Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2021eko
1. seihilekoko kontuen itxieraren zirriborroa.

4. Hezkuntza Itunaren hasiera.

5. Nafarroako Eskola Kontseiluaren logoaren
proposamena.

6. Presentación revista IDEA53

7 Galderak eta eskaerak.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

María José Anaut Couso and.

Sindikatuaren ordezkaria
(UGT)

Germán Chocarro Garbayo jn.

Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioaren
ordezkaria. BRITILA.

Iosu Mena Sarasola jn.

Ikastetxe publikoetako zuzendarien
ordezkaria

Mikel Lizaso Odriozola jn.

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (LAB).

Ezin etorria adierazi dute:

María Teresa Módol Betriu and.

Ikasleen Gurasoen Elkartearen ordezkaria
(CONCAPA)

María Soledad Garjón López and.

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (AFAPNA).

Mikel Rodríguez Aguirreche jn.

Enpresariaren elkartearen ordezkaria.

Ignacio María Iraizoz Zubeldia jn.

Nafarroako ikastetxe pribatuaren entitate
titularren ordezkaria
(ANEG-FERE).

Begoña Unzué Vela and.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

Mari Luz Sanz Escudero and.

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)

José Jorge Lanchas Rivero jn.

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

Ez dira bertaratu:

Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe and.

Toki entitateen ordezkaria.

Marta Díez Napal and.

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria

(SORTZEN)

Patricia Fanlo Mateo and.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E).

Santiago Álvarez Folgueras jn.

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA).

Maite Pellejero Olcoz and.

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

María Rodríguez Moran and.

Ikasleen Guraso Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Lourdes Larunbe Arretxe and.

Ikastetxeetako administrazioko eta
aerbitzuetako langileen ordezkaria

Carmela Muñoz Ventura and.

Ikastetxe pribatuetako irakasleen
ordezkaria

(FETE-UGT)

Mario Fabo Caleo jn.

Toki entitateen ordezkaria.

Ainara González Rubio and.

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarteen ordezkaria.

Gai zerrendaren sarrera gisa, Carlos Gimeno Gurpegui Hezkuntzako kontseilariak hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkio hezkuntza komunitate osoari, aurtengo ikasturteko osasun pandemiaren ondoriozko krisialdian izandako jokabideagatik. Horri esker, hezkuntza zerbitzu publikoa aurrez aurre eskaini ahal izan da. Horregatik, berriz ere eskerrak eman dizkie Nafarroako hezkuntza sistema osatzen duten elementu guztiei, baita Hezkuntza Departamentuko langileei, irakasleei, familiei, ikasleei eta hezkuntza sisteman lan egiten duten guztiei ere.

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik egiteko daukaten.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

Kontseiluburuak kideei emandako dokumentazioa aipatu du, dagokion informazioarekin.

3. Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2021eko 1. seihilekoko kontuen itxieraren zirriborroa.

Kontseiluburuak labur-labur azaldu ditu emandako dokumentazioaren datuak, eta onartzeko eskatu du.

Onartu egin da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

4. Hezkuntza Itunaren hasiera

Kontseiluburuak adierazi du Hezkuntzako kontseilariaren helburua zela hori, eta COVID-19 pandemiaren ondorioz atzeratu egin dela itunaren hasiera. Hala ere, eztabaidaren hasieran erantsiko diren dokumentuak lantzen jarraitu dute, eta labur-labur deskribatu dira horretarako erabilitako dokumentuen edukiak. Horrez gain, adierazi du lantaldeen bilerak aurtengo irailean hasiko direla.

German Chocarrok hartu du hitza, eta hasierako dokumentuan *IIP* (ingelesez ikasteko programa) edo *ingeles* terminoak behin ere ez direla agertzen adierazi du. Adierazi duenez, duela urtebete Nafarroako Eskola kontseiluburuari eskatu zion testuan sar zezala, baina hark ez du beharrezkotzat jo, eta hori, Chocarro jaunaren ustez, hasiera makurra da hezkuntza ituna lortzeko.

Kontseiluburuak adierazi du hasierako dokumentu hori Aragoiko eta Kanarietako autonomia erkidegoetan egindako antzeko beste dokumentu batzuen transkripzioa dela, non hezkuntza ituna zehaztu den, baina erkidego horietan ez dela aplikatzen ingelesez ikasteko programa, eta horregatik ez dela hasierako dokumentuan agertzen. Dena den, horrek ez du esan nahi lantaldeen bileretan eta eztabaidetan sartu ezin denik, baina, jakina, lehendakariak ez zion hura sartzeari ezetzik esan, edo ez sartzetik erabaki.

5. Nafarroako Eskola Kontseiluaren logoaren proposamena.

Kontseiluburuak azaldu du komeni dela Nafarroako Eskola Kontseiluaren logo berria egitea, eta, horretarako, Corellako Arte Eskolari bertako ikasleek egin beharreko logo berriaren 7 proposamen eskatu zitzaizkiola, eta aurrekoaren zenbait irizpide mantentzeko eskatu zitzaizela; hala nola kontseiluaren kolore adierazgarriak erabiltzea eta forma zirkularra. Aurkeztutako zazpi proposamenetatik bost atzera bota ditu batzorde iraunkorrek, eta gainerako bi proposamenei buruzko erabakia eskatu du: 1. eta 3. proposamenak.

Bertaratutako Eskola Kontseiluko kideen artean eztabaida sortu da, eta, azkenean, bozkatu egin da. Hau izan da emaitza: 1. proposamena: aldeko 6 boto, 3. proposamena: aldeko 7 boto

3. proposamena hautatzea erabaki da.

6. IDEA aldizkariaren 53. alearen aurkezpena.

Kontseiluburuak jakinarazi du aldizkaria Nafarroako Eskola Kontseiluko kideei bidali zaiela.

7. Galderak eta eskaerak.

German Chocarrok hartu du hitza, eta adierazi du aurreko osoko bilkuran eskatu zuela eztabaidan sartzeko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ikastetxeetako oreka indizearen gaia, eta uste du gai horri buruz ez dela eztabaidatu.

Kontseiluburuak erantzun du, eta adierazi dio oraindik ez dela sartzeko eta eztabaidatzeko denborarik izan.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkuran izan diren kideen parte hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 19:20an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.